


SOINUMAPA.NET

Euskal Herriko Soinuen Mapa



ZER DA SOINUMAPA?

SOINU MAPA elkarlanera eskainitako sare egitasmo irekia da. "Fonografia" edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, proiektu honek landa-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatu nahi ditu. Webgune honetan Euskal herrian zehar egindako hainbat soinu grabaketa entzun daitezke, toki bakoitzaren errealitateari eta izaerari buruz informazio ugari eskaintzen dutenak, eta aldiberean soinuuzko memoria bilduma interesgarri, aberatsa eta publikoa osatzen dutenak.

Soinuzko grabaketak egiteko ohitura edo gogoia duen edonork egin dezake bere ekarpena Soinumapa, mapa bera osatu eta norberaren grabaketak gainerako bisitariekin elkarbanatzeko. Azken finean, hasieratik online sortu, oraindik online dagoen, etengabe online sortzen den eta online bizi eta haunditzen den soinuen artxibo ireki, publiko eta erabilgarri bat da Soinumapa.

Beraien elkartruke motak eta erabilerak arautzeko, Soinumapako artxiboa osatzen duten ekarpen guztiak Creative Commons lizentziapean banatzen dira, erabilera berriak eta sortzaileak bermatzeko eta sustatzeko asmoz.

ZER DA FONOGRAFIA?

Fonografia hitzak jatorri grekoa du, eta soinu bidezko idazketa esan nahi du. Soinu bidez egindako landa grabaketen praktika artistikoa izendatzeko neologismoa da, oinarrian estudiotik kanpo egindako grabaketa oro sartuz praktika horren barruan. Egun, bi adiera nagusi ditu praktika honek:

- Naturako soinuak grabatzeko praktika: Soinu paisaiak, bioakustika...
- Espazio publikoan gertatzen diren musikak eta orokorrean soinua protagonista duten kultur gertakari oro biltzeko praktika: Etnomusikologia, antropologia soziala, memoria kolektiboa...

Soinua grabatzeko teknologiak sortu bezain pronto sortu zen gure inguruneko soinuak biltzeko grina. Baina bereziki, azken hamarkadan, teknologia horiek digitalizatu eta ondorioz merketu diren heinean, zabalkunde haundia bizi du praktika honek. Egun, mundu osoko soinu artista askok erabiltzen ditu teknika fonografikoak, beraien artelanen langai nagusi bezala erabiltzeko. Eta berdina esan genezake irrati sorkuntza, ondare inmateriala eta antzeko alorrei buruz ere.

HISTORIA, IBILBIDEA

SOINU MAPA Arteleku Arte Garaikideko Zentruan egoilarra den Audiolab egitasmoak jarri zuen martxan 2005ean. Hastapenetik Xabier Erkizia artista eta ekoizlearen zuzendaritzapean sorturiko egitasmoa da, nahiz eta beti izan duen egitasmo kolektiboa izateko jarrera eta gogoia. Webgunearen programazioari dagokionean Enrike Hurtado eta Xavier Balderas izan dira, momentu bakoitzaren beharren arabera web-plataforma teknikoki sortu eta moldatzen joan direnak, egungo bertsiorarte; eta edukien edo lan ildoen aldetik Oier Iruretagoiena artista gipuzkoarraren edo Luz Maria Sanchez mexikarraren ekarpenak nahitaezkoak izan dira Soinumapa gaur dena izateko.

Egun, kolektibo modura, 6 pertsonen osatutako editore talde batek zuzentzen du Soinumapa eta talde honek berak pentsatu eta ezartzen ditu etorkizunean aitzinera eraman beharreko lan ildo nagusiak. Aldiberean talde honek berak, administrari lanak betetzen ditu, kolaboratzaile sareari laguntza eskainiz, eta artxiboak dituen beharrei aurre egiteko.

Webgunea bizirik mantentzeaz gain Soinumaparen esperientziak soinu paisaien inguruko lan ildo bat sortu du Audiolaben ekitaldien barnean eta besteak beste hitzaldiak, aurkezpenak, kontzertuak, tailerrak, instalazioak, esperientzia didaktikoak eta bestelakoak sortu ditu. Hauen artean beharbada aipagarrienetako bat HOTS! irrati digitalaren sorrera da (www.hots-radio.info), non mapak martxan jarritako zenbait eztabaida eta erreflexio irrati-podcast formatuen bidez erakustera ematen diren. Azken urteotan SOINU MAPA besteak beste, Tuned City (Berlin, 2007), World Forum for Acoustic Ecology (Mexiko, 2009), Biennale d'Arte di Venezia (Venezia, 2009), Rozdrova cultural center (Polonia) edo CCCB (Bartzelona) bezalako lekutan aurkeztu izan da.



HELBURUAK

Gure historia garaikidean zehar, bereziki soinuak grabatzeko teknologiak eskuragarri jarri eta gero eraiki izan diren soinuazko artxibo egitasmo gehienek, izaera publikoa izan arren ez dute proposatu sarbide lasai eta erosorik. Horregatik iritzi diogu hain garrantzitsua mendeetan galdutako memoria kolektiboa berregin, sortu eta edonorekin partekatzeari. Abiapuntu hortatik, egitasmo honek hainbat helburu desberdin jarraitzen ditu:

- **Artxibo libre, publiko eta kolektiboa** osatu.
- **Jakintza kolektiboaren** aldeko apustua egin. Denon artean partekatuz, denok ikasi dezakegu gehiago.
- **Soinuzko memoria**ri buruzko hausnarketa tresna eraginkor bat proposatu
- **Ondare inmaterialari** arreta berezia eskainiko dion azpiegitura sortu.
- **Ekologia akustikoa** edo **antropologia** bezalako alorrentzako ekarpen dinamikoa proposatu.
- Gure **natur eta kultur ingurunea**renganako erlazio berriak sustatu.
- Ikusentzunezko eta orokorrean sorkuntzaren mundu zabalarari **lan tresna erabilgarria** eskaini.

EGITASMOAK, LAN ILDOAK

Mapa osatzeaz gain, Soinumapako lan taldeak hainbat ekitaldi jarri ditu martxan azken urteotan, egitasmoari ahalik eta ekarpen aberatsenak egin eta egindako lana ahalik eta erabiltzaile gehienari hurbildu eta eskaintzeko asmoz.

Hala, azken 5 urteotan haur nahiz helduentzako entzumenari buruzko tailerrak (Nafarroan, Paraguayn, Lublinen, Bartzelonan...), dokumentazio lanak (Ekialdeko Timor, Polonia, Toskana, India...), paper nahiz cd euskarriko argitalpenak, telefono mugikorretako audio-gida interaktiboak, "egin ezazu zeuk" mikrofonoak sortzeko tailer teknikoak, sarerako mapak sortzeko software eragileak, hitzaldiak, kontzertuak, instalazioak eta bertze hainbat ekimen antolatu izan ditu.

Sei urteko ibilbidea egin ondotik, eta fonografiaren alorrean, bai bertan nahiz atzerrian esperientzia jaso eta garatu ondotik, SOINUMAPA.NET egitasmoak fase berri bati ekin nahi dio. Orain arteko lan dinamika eta filosofia berari eutsiz, lan ildoak ugaritu eta espezializatzea izango du helburu. Hortarako ildo hauetako bakoitzean lan egingo duten lan talde finkoak osatu nahi ditugu, talde bakoitzak grabatu nahi diren gaienezako egokienak diren prozedurak pentsatu (kasu batzuetan birpentsatu) eta ikerketa lan zehatzak aurrera eramateko. Lan hauen argitalpenarekin soinumaparen artxiboa aberasteaz gain, erabiltzaile ezberdinei eredu berriak proposatu nahi dizkiegu, egitasmoan parte hartzeko modu berriak erakutsiz, eta zentzu hortan artxibo beraren erabilera pedagogikoa sustatuz.

Helburu horrekin, zenbait egitasmo burutu nahi ditugu gure soinu bilketak pentsatu eta sortzeko orduan, denak izendapen edo helburu jakin baten barnean: **Desagertzeaz edo desagertzeko arriskuan dauden soinuak.**

Klasifikazio hau itsu-itsuan besarkatzeak suposatzen dituen kontraesan eta arazoen gainetik, halako helburu batekin lan egiteak, erreflexio prozesu bat martxan jartzea suposatzen du. Alde batetik, gure kultur ondare ez-materialaren inguruko erreflexioa, baina baita ingurumenari buruzkoa edo zergatik ez, soinu beraren diseinuari dagokiona. Batzuk aipatzearen sail honen barruan koka daitezken zenbait atal izango lirateke:

- Lanaren soinuak: Tresna zaharrak edo teknologia zaharrak erabiltzen dituzten lanbideak
- Zeinu akustikoak: Gure herrietako soinu-markak izan diren hainbat zeinu, halanola, eskuz jotako ezkilak, industrialdeetako sirenak, nekazalguneetako ahotsak...
- Gutxitutako Kultur adierazpenak
- Aldaketa geografiko nabarmenengatik (errepideak, aireportuak...) betirako desagertuko diren soinu paisaiak
- Aldaketa klimatiko edo ekologikoengatik desagertuko diren soinu paisai ezkutuak: urazpiko soinu paisaiak, irrati emisio naturalak....

ZERBITZUAK

- Fonografiaren kulturari eta entzumenaren kulturari buruzko hitzaldi eta tailerrak
- Elementu eskuragarriekin kalitate haundiko Mikrofonoak sortzeko tailerrak
- Sarerako mapak sortzeko tailerrak, SoinuMapa plugin eta Wordpress erabiliz
- Android sistema eragilerako soinuuzko gidak edo audio-giden diseinua eta edukien sorkuntza
- Android sistema eragilerako soinuuzko gidak edo audio-gidak sortzeko tailerrak
- Soinu instalazioak/erakusketak
- Kontzertuak, zuzeneko emanaldiak, entzunaldiak
- Dokumentazio lanak: leku eta egoera jakin batean soinu bidez dokumentazioa sortzeko egitasmoak
- Entzumenari buruzko zinema zikloak
- Irrati sorkuntzak
- Soinu diseinu lanak ikuskizun eta bertzelako produktuentzako
- Entzumenari eskainitako ekitaldien antolakuntza (12 urteko esperientziarekin)

Hauetako edozein proposamen antolatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan eta proposamenaren araberako proiektu bat pentsatzen hasiko gara.

HARREMANETARAKO:

AUDIOLAB elkarte / SOINUMAPA.NET . Xabier Erkizia
Kristobaldegi kalea 14
20014 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

tf: +34 666904447
@: audiolab.arteleku@gmail.com